



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIAREN 2013ko URTARRILAREN 23ko EBAZPENA, ZERBITZU-EGINKIZUNAK BALIOGABETZEKO PROZEDURA ETA 2012ko EKAINAREN 26ko AGINDUAREN BIDEZ DEITUTAKO AUKERATZE-PROZESUAK ERAGINDAKO LANPOSTUAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA IKUSKARIEN KIDEGOKOAK, ESLEITZEKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK ONDORIORIK GABE UZTEN DITUENA.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko ekainaren 26ko aginduaren bidez aukeratze-prozedura bat deitu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskarien Kidegora sartzeko.

Lehiaketa- eta oposizio-faseek bukatu ondoren, praktiketako funtzionarioei izendatu behar zaizkie eta, halaber, Hezkuntza Ikuskaritzaren funtzioak beteko dituzten pertsonak izaten jarraitu behar dugu. Gainera, jakina denez, aipatutako aukeratze-prozesuak aldaketak dakartza gaur egun, zenbait deialdiren ondorioz, zerbitzu-eginkizunetan betetzen ari diren lanpostuak betetzeko orduan.

Horregatik, Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren bi ebazpen, abenduaren 14koak, eman ziren argitara. Batek Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetan zerbitzu-eginkizun guztiak baliogabetzeko prozedurari hasiera ematen zitzaiola adierazten zuen, praktiketako funtzionario berriak sartzea zerbitzu-eginkizun guztiak baliogabetzeko une egokia zela uste zelako. Beste ebazpenak funtzionario irakasleei, praktiketako ikuskarien lanpostuak esleitu ondoren zerbitzu-eginkizunak kendu zitzaizkienei, zerbitzu-eginkizun berriak emateko prozedura eta irizpideak finkatzen zituen.

Hala ere, Hezkuntza Ikuskaritzako zerbitzu-eginkizunak esleitzeko unea ikasturtearen hasiera dela pentsatu du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak. Dagoen egoera aztertu ondoren, zerbitzu-eginkizun guztiak, baita 2013ko abuztuaren 31n bukatuko dutenak ere, une horretan baliogabetzea Hezkuntza Ikuskaritza zerbitzuaren interes publikoaren kontrako jardunbidetzat jo daitekeela kontuan hartuta eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 legeak 105. artikuluan xedatutakoaren arabera, aipatutako ebazpenak ondorioz gabe uztea erabaki du.

Horregatik, eta legeak ematen dizkidan eskuduntzez baliatuz,



EBATZI DUT

Lehena.- Ondoriorik gabe uztea *Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2012ko abenduaren 14ko ebazpena, irakasleek betetzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskarrien Kidegoko lanpostuetan zerbitzu-eginkizunak baliogabetzeko prozedurari hasiera ematen diona.*

Bigarrena.- Ondoriorik gabe uztea *Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren 2012ko abenduaren 14ko ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuak, 2012ko ekainaren 26ko aginduaren bidez Hezkuntza Ikuskaritzarako deitutako LEP ebatzi izanaren ondoriozkoak, esleitzeko prozedura eta irizpideak zehazten dituena.*

Hirugarrena.- Hezkuntza Ikuskarrien Kidegoko lanpostuak 2012ko ekainaren 26ko aginduaren bidez deitutako prozeduran izendatutako praktiketako funtzionarioei esleitu ondoren, 2013ko abuztuaren 31ra arte luzatuko dira Hezkuntza Ikuskaritzako lanpostuetan 2010eko maiatzaren 20ko eta 2011ko maiatzaren 9ko deialdietan emandako zerbitzu-eginkizunak,- Hezkuntza Ikuskarrien Kidegora sartzeko deialdia ebatzi izanaren ondorioz ez daude zerbitzu-eginkizun horiek indarrean,-. Gainontzeko zerbitzu-eginkizunek data berean bukatuko dute.

AZKEN XEDAPENA.- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren web orrian argitara ematen den egunetik aurrera sartuko da ebazpen hau indarrean.

Errekurtsiak

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren web orrian argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 legeak 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko urtarrilaren 23a

EL DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL/LANGILERUAREN
KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA

KONRADO MUGERTZA URKIDI